

## OÑATIKO KALE GARBIKETA PUBLIFIKATU ZELA 2 URTE.

### KUDEAKETA ZUZENA, ERAGINKORRAGOA ETA EKONOMIKOAGOA.

Oñatiko Udalak kale garbiketa zerbitzua publifikatu zuela 2 urte igaro direnean, Udal Gobernu Taldeak harturiko erabakiaren balorazio bat egin du.

Mikel Biain, alkatearen hitzetan, alde batetik balorazioa ekonomikoa dago eta bestetik zerbitzu- kalitatearen balorazioa.

Balorazio ekonomikoari dagokionean, 2018ko Maiatzean Udal Kontuhartzaileak txosten ekonomikoa egin zuen. Hainbat orrialde dituen txostenean, kontuhartzailearen ondorioak honokoak dira:

- Alderaketa homogeneo bat eginez gero, hau da, FCCk zerbitzurako erabiltzen zituen makina eta persona kopuru bera (8 langile+barredora 1) egungo kudeaketa zuzeneko eredura ekarrita, 402.627,85 EUR litzateke Udalaren kostua. FCCren urteko kostua 567.311,67 EURtako zen. Ondorioa argia da: Baliabide kopuru berdinak alderatuta kudeaketa zeuzenean %30a jeitsi da urteko kostua.

KALE GARBIKETA: FCC-REN KONTRATUA VS ZERBITZU PUBLIKOA	
KOSTU EKONOMIKOEN ALDERAKETA HOMOGENEOA	
EREDUAK	UDALARENTZAT KOSTUA
FCC ren zerbitzua 8 langile + barredora mekaniko 1	567.311,67
Gaur eguneko zerbitzu publikoa 8 langile eta barredora mekaniko 1 (hipotesia)	402.627,85
Urteko aurrezpena (baliabideak homogeneizatuta)	164.683,82
%	29,0288088

Baina Udal Gobernutik argi utzi nahi da erabaki hau ez zela irizpide ekonomikoetan oinarrituta bakarrik hartu; zerbitzuaren kalitatea eta kontrola hobetzeko asmoz baizik. Horregatik, zerbitzu berria diseinatzerakoan, baliabide gehiago eta prozedura berriak ezarri ziren. Honek ekarri du zerbitzuaren kalitatea nabarmen hobetzea. Sortu den lantaldeko pertsonak eta antolakuntza berria dira hobekuntzaren gako nagusiak.

Gaur eguneko zerbitzu berriak modu iraunkorrean 11 langile, 2 barredora, kamioia eta presiozko garbiketa tresneria berria ditu. Langile gehiago eta makinaria gehiago jarrita, oraindik ere FCCren kostua baino bajuagoa da egungo kudeaketa zuzenarena. Hau da, 561.682,63 EUR VS. 567.311,67 EUR.

Nolanahi ere, ezin aipatu gabe utzi, pribatizaturiko zerbitzu bat publiko bihurtzea oso lan konplikatu dela batez ere personal arloari dagokionean. Oñatiko kasuan, Lan eskeintza publiko bat egin zen, langile ordezkariekin lehiaketa oinarriak adostuz.

Lehiaketa horretan langile berriak sartu ziren eta FCCko langile ziren batzuk kanpoan geratu ziren lehiaketa ez zutelako gainditu. Langile hauen kalteordainetan 224.599 EUR ordaindu zituen Udalak .

Goian aipatu bezala, erabakia modu zuzenean baloratu ahal izateko baliabideen alderaketa homogenea egin beharren gaude. Hau da, Udalak zerbitzua publikatu eta FCCren baliabide berdinekin jarraitzea erabaki izan balu, urtean 164.683 EUR aurreztuko lituzke zerbitzuaren kostuan. Hau da, urte eta 4 hilabetean kalteordainen efektu ekonomikoa iada amortizatua geratuko litzateke.

Udal Gobernu honek argi ikusten du oinarri-oinarrizkoak diren zerbitzu publikoak modu zuzenean eta publikoan eskeintzeko ahalegin berezia egin beharko litzateela. Mingarria suertatzen da Udal batek antolatu ditzazkeen zerbitzuak empresa pribatuen esku uztea eta kasu askotan gertatu izan denez erakunde publiko bat beraien irabazi asmo eta lukurreriaren menpe geratzea.

Oraingoan kale garbiketaren adibidea dakargu baina beste hainbat Udal zerbitzu era aipatu ahalko genituzke, esaterako zerbitzu eta igeltseritza brigadak. Ikusi besterik ez dago azken urteetan ze neurritan hobetu den zerbitzu hauen kalitatea.

**Arduradun publikoak garen heinean gure ardura da herri baliabideak ahalik eta modu zuzenean kudeatuz zerbitzu publikorik egokiena eskeintzea.** Horixe da hain zuzen Udal Gobernu honen iparra.